



akordioa | el acuerdo jomuga | como meta



kristau • eskola

Kristau Eskolak hezkuntza akordio zabala bultzatzeko bidean beste urrats bat emango du datorren **martxoaren 26an**. Euskal hezkuntza sistemari egonkortasuna emango dion ikasleen beharretan oinarritutako akordioa sustatzeko AKORDIOA JOMUGA izeneko **sinposioa** antolatu du egun horretarako **Bilboko Euskalduna Jauregian**. Hala, gogoeta eta eztabaida irekitzea bultzatu nahi du benetako akordia gauzatze aldera, eta horren partaide egin nahi du zure erakundea, Euskal Hezkuntza Sistemaren eragile gisa.

Ekimen honek jarraipena ematen dio akordioaren beharra eta bere ikuspuntua aurkezteko Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean 2011ko abenduaren 12an egindako agerraldiari. Egun hartan, gogoeta Kristau Eskolako ikastetxeetako zuzendaritza taldeekin partekatu zen Barakaldoko BEC-en eta ondoren 70.000 familietara eta 7.500 hezitzaileengana zabaldu zen analisisa abenduan banatutako materialari esker.

Kristau Eskolak, hezkuntza sistemaren parte den neurrian, bere arduretatik beste eragileekin hartu emanean eta elkarrizketan akordio hori adosteko asmoz, bere analisisa, gogoeta eta irtenbideak jarri nahi ditu mahai gainean eztabaidarako, gizartean eta Legebiltzarrean egin behar den hausnarrerako.

Garrantzitsutzat jotzen dugu hezkuntza eragile guztien erantzukizun partekatua kontutan izatea hezkuntza sistema iraunkor eta bideragarri bat lortzeko irtenbide adostuak bilatze aldera. Guzti hau, benetako iparra galdu gabe: aukera berdintasunean eta eskubide berdintasunean burutzen den pertsona bakoitzaren garapena, edozein dela ikasleari zerbitzu ematen dion hezkuntza sarea.

Sistema osatzen dugun eragileen eta Administrazioaren arteko elkarlanean oinarrituz, guztion artean bikaintasuna helburu duen hezkuntza sistema eraiki behar dugula pentsatzen dugu, eta hori dela eta antolatu dugu sinposioa. Bertan izango da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua, Isabel Celaá anderea (hitzaldi bat emango du), eta baita hezkuntza eragile nagusien ordezkaritza zabal bat mahai inguru bat osatuz. Bertan parte hartuko dute Mikel Ormazabal jaunak (Kristau Eskola), Koldo Tellitu jaunak (Ikastolen Elkarte), Chechu Echeverria jaunak (AICE), Mikel Gastañares jaunak (Ikasgiltza), Miren Abasolo andereak (EIB) eta Aitziber Martínez de Lagos andereak (Sortzen Ikasbatuaz).

Sinposioarekin bat egingo dute, bigarren mahai inguru baten bitartez, Hezkuntza Batzordeko legebiltzar taldeetako bozeramaileek. Bertan izango dira Arantza Aurrekoetxea anderea (Euzko Abertzaleak-Nacionalistas Vasco), Vicente Reyes jauna (Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak), Iñaki Oyarzabal jauna (Popular Vasco-Euskal Talde Popularr), Mikel Basabe jauna (Aralar), Juanjo Agirrezabala jauna (Eusko Alkartasuna), Mikel Arana jauna (Ezker Anitza-IU) eta Gorka Maneiro jauna (UPyD).

Jardunaldiaren egitaraua hauxe izango da:

- 9:30** Aurkezpena
- 9:35** Joseba Kamiruaga, Kristau Eskolako lehendakari jaunaren inaugurazio hitzaldia
- 10:00** Oinarrizko txostenaren aurkezpena (Aitor Bilbao, Kristau Eskolako Zuzendari Nagusia)
- 10:35** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua den Isabel Celaá anderearen hitzaldia
- 11:15** Kafea-atsedenaldia
- 11:45** Hezkuntza eragileen mahai ingurua
- 13:30** Goizeko jardunaldiaren amaiera
- 15:30** Arratsaldeko saioaren aurkezpena
- 15:35** Eusko Legebiltzarreko talde politikoen parlamentarien mahai ingurua
- 17:15** Amaiera

Kristau Eskolak, hilaren 26an Euskalduna Jauregian antolatu duen sinposiora gonbidatzen zaitu, hezkuntza eragile gisa zure ekarpena analisia eta eztabaidarako lagungarria izan daitekeelako eta hala behar duelako.

Aldez aurretik, beharrezkoa da izen ematea, eta horretarako honako helbide elektronikoa bideratu da: kristaueskola@kristaueskola.org. Telefonoz ere eman daiteke izena: 902 540 590.

Aitor Bilbao
Kristau Eskolako Zuzendari Nagusia